

II EDO II. GRADUKO MENDEKOTASUNA DUTEN ADINEKOENTZAKO EGOITZA

Garrantzitsua

Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

Pertsona 65+ mendekotasuna > Egoitza edo tutoretzapeko apartamentu batera sartu

Fitxa laburtua kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio osoa](#).

Norentzat

II. eta III. graduko mendekotasuna duten 65 urtetik gorako pertsonak. Mendekotasuna baloratzeko baremoan (MBB) 50 puntutik 100 puntura.

Kostua

Koordainketa duen zerbitzua, pertsonaren egoera ekonomikoaren eta erabilera-modalitatearen arabera.

Baldintzak

65 urte edo gehiago.

II. edo III. graduko mendekotasuna (salbuespenez I. maila Aldundiek hala aurreikusten badute eta albuespen hori preskripzio teknikoan behar bezala justifikatzen bada).

Erroldatzea.

Zertan datza?

Beren ohiko ingurunean egon ezin diren eta mendekotasuna duten adinekoentzako ohiko etxebizitza gisa erabiliko diren zentroak ([2.4.1 fitxa](#)). Laguntza handia behar duten pertsonentzako egoitzak dira, honako hauek bermatzen dituztenak:

- a. zaintzaileak etengabe egotea egunean 24 orduz;
- b. zerbitzu medikoa eta erizaintzako;

c. diziplina anitzeko profesional-talde baten laguntza, arreta integrala emateko.

Egoitzek arreta pertsonala, gizarte-laguntza, estimulazio edo errehabilitazio esku-hartzea, aisialdia eta hezkuntza eta kultura jarduerak eta esku-hartze psikosoziala eskaintzen dituzte. Otordu zerbitzua (gosaria, bazkaria, askaria, afaria), garbitegia eta garbiketa ere sartzen dira. Osasun-prestazioei dagokienez, erizaintzako arreta, arreta medikoa, errehabilitazioa eta laguntza psikologikoa sartzen dira.

Norentzat?

65 urte edo gehiagoko pertsonak, **II. edo III. graduako mendekotasuna dutenak (I salbuespenez)**. Harekin bizi ohi den pertsona ere (senidea edo ezkontidea) sartu ahal izango da egoitzara.

Zenbat balio du zerbitzuak?

Koordainketaren menpe dagoen zerbitzua, onuradunaren ekonomiaren eta baliabidea erabiltzeko modalitatearen arabera.

Zer baldintza bete behar ditut eskatzeko?

65 urte edo gehiago izatea. Adin muga hori ez zaio aplikatzen laguntzaile gisa sartzen den senideari.

II. edo III. graduako mendekotasuna baloratzea; intentsitate handiko Laguntza behar izatea eguneroko jarduerak egiteko.

Eskaera egiten den Lurralde Historikoko **udalerriren batean erroldatuta egotea**.

Non eska dezaket zerbitzua?

Zure auzo, udalerri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan**.

Informazio gehiago:

- [Mendekotasuna duten adinekoentzako egoitza Araban](#)
- [Mendekotasuna duten adinekoentzako egoitza Bizkaian](#)
- [Mendekotasuna duten adinekoentzako egoitza Gipuzkoan](#)

[Kontsultatu informazio osoa](#)